



Arartekoren 2021S-819-20 Ebazpena, 2021eko azaroaren 15ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari iradokitzen zaio berrikus dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea iraungitzeko ebazpena, ulertzen baita ez dela urratu aski baliabide ez izateko betekizuna, egiaztatu baita herentzian jasotako ondasunak gauzatzea zaila izango dela, biziarteko usufruktuz kargatuta daudelako.

Aurrekariak

Herritar batek Arartekoaren esku hartzea eskatu zuen, ez zegoelako ados Lanbidek bere bizikidetza unitateari aitortutako diru-sarrerak bermatzeko errenta osagarria iraungitzeko emandako ebazpenarekin.

57 urteko kexagile batek pertsona bakarreko bizikidetza unitatea osatzen zuen, eta pentsioduna zen. Langabezian zegoen, ez zeukan etxebizitzarik jabetzan, alokatutako logela batean bizi zen eta oinarrizko beharrianak betetzeko diru-sarrera bakarra kotizazio gabeko pentsioa zen, % 65eko ezgaitasuna izateagatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak aitortutakoa; diru-sarrerak bermatzeko errentarekin osatzen zuen.

2020ko martxoaren 19ko data zuen ebazpen bidez, Lanbidek kexagileari jakinarazi zion diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungi zizkiola, honako hau zela eta:

147/2010 Dekretuaren 9.3.c artikuluan ezarritakoa ez betetzea: Dauzkaten dirua, tituluak, baloreak, ibilgailuak eta, oro har, dekretu honetako III. kapituluko 4. sekzioan aipatutako beste edozein ondasun higigarri gehienez ere honen zenbatekoak izatea: batere baliabiderik gabe eta bizikidetza-unitateko kideen guztizko kopuruaren arabera legokiekeen Diru-sarrerak bermatzeko errentaren urteko zenbatekoaren lau halako zenbatekoa.

Eskatzailearen ondarea (tituluak, balioak, ibilgailuak, eta, oro har, beste edozein ondasun higigarri) honelakoa izatea: bizikidetza-unitateko kideen kopuruaren eta bizikidetza-unitate motaren arabera eta batere baliabiderik ez izatearen kasurako dagokion gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errentaren urteko zenbatekoaren gehienez halako lau baino handiagoa.

- Edozein higiezinaren biziarteko jabetza soila kalkulatzeko, biziarteko gozamenaren balioa katastro-balioari kentzen zaio.

Biziarteko usufruktuetan, balioa ondasunen balio osoaren ehuneko 70ekoa dela kalkulatu da, gozamendunak hogeitun urte baino gutxiago dituenean, eta ehuneko murriztuko da, adinari urte bakoitzeko % 1 gutxiago gehitzen zaion heinean, balio osoaren gutxieneko % 10eko mugarekin.



Entzunaldiaren izapidearen xede diren 4 higiezin jabetza-ehunekoaren katastro-balioa 56191,55 eurokoa da. Zenbateko horri% 10 kenduta (56191,55 euro), 50572,4 euroko ondare konputagarria ateratzen da, 41081,25 euroko gehieneko zenbatekoa gainditzen duena.

-147/2010 Dekretuaren 9.3.d artikuluan ezarritakoa ez betetzea: Dekretu honetako 22. artikuluan ezarritako nahikoa baliabiderik ez edukitzeko kasuren batean ez egotea.

Dekretu honetako 22. artikuluan ezarritako nahikoa baliabiderik ez edukitzeko kasuren batean egotea.

-147/2010 Dekretuaren 12.1.f artikuluan ezarritako betebeharra ez betetzea: Prestaziorako eskubidea aldatzea ekar dezaketen gertakarien berri ematea, gertakariak sortzen diren unetik eta gehienezko hamabost eguneko epean.

Lanbide bulegoari berri ez ematea: 1. Komunikatu behar diren aldaketak Diru Bermatzeko Errentaren araudi barnean, batez ere bizikidetz-unitatearen konposaketan, ohiko bizitokian edota errekurtsoen maila prestazioaren kalkulurako balio izan dutenak. 2. Etxebizitza prestazioen betebeharrekin loturak dauzkaten aldaketak, behinik behin, Etxebideko zerbitzuan inskribatua ez egotea edota alokairuan edo jabetzan etxebizitza bat edukitzea.

Hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Ogasunak eta estatu mailako ogasunak Lanbideri baieztatu zioten diru-sarrerak bermatzeko errenta osagarriaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularrak 4 higiezin jabetza soileko ehuneko bat zeukala, eta bere amak, aldi berean, biziarteko usufuktua zuela higiezin horiekiko.

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 24.4.b) artikulua adierazten duen bezala, laugarren atalean, ondarea zehaztean ondasun higiezienei dagokienez:

“4. Jabetzaren osotasuna ez duten higiezinak baditu edo jabetzako etxebizitzaren luperketa mugatuta badu inposatutako usufuktu-egoeren edo horien parekagarrien ondorioz, eta beraz nekez baliatu daitezkeen ondasunak badira, ondoko balorazio-erregelak aplikatuko dira:

(...)

b) Higiezin baten ganean usufuktu-eskubide bat eratzen denean ondasun horren balio gisa konputatuko da katastro-balioaren eta usufuktuaren arteko diferentzia. Horretarako, aldi baterako usufuktuaren balioa ondasunen balio osoaren proportzioan aterako da, % 5ean urtealdi bakoitzeko, % 70 gainditu gabe, eta biziarteko usufuktuaren balioa ondasunen balio osoaren % 70ekoa dela ulertuko da usufuktuaren hogeituneko urte baino gutxiago dituztenean, eta portzentajea % 1eko proportzioan gutxituko da usufuktuaren aldira gehitu ahala. Gutxieneko muga balio osoaren % 10 izango da.”

Jakinarazi ondoren, kexagileak erabaki horren aurkako berraztertze errekurtsioa aurkeztu zuen egokitzen jo zuen dokumentazioa aurkeztuz. Bertan azalduenez,



2018ko martxoaren 2an aitaren titulartasuneko zenbait higiezin jaso zituen herentzian, zegokion ehunekoan; hala ere, jasotako ondasun guztiak amaren aldeko biziarteko usufuktuz kargatuta zeuden, errekurtsoarekin batera aurkeztu zuen herentziaren banaketa eskrituraren kopia sinplean ageri zen moduan. Hortaz, aipatutako higiezinaren balizko etekinik ez zuen lortzen, amari baino ez zegozkiolako, eta bera, gainera, ez zen amarekin bizi. Are gehiago, azaldu zuenez, puntualki lagun sarearen laguntza jasotzen zuen oinarrizko beharrianak betetzeko edo bat-batean sortutako gastuak ordaintzeko.

Errekurtsio horretan, kexagileak berriz ere nabarmendu zuen herentzia hura jaso arren, herentzia horri esker bere bizikidetzaren unitatearen diru sarrerak ez zirela areagotu, bere oinarrizko beharrianak betetzerakoan ez zuen inolako onura ukigarririk eskuratzen. Herentzia aurreko egoerarekin erkatuz gero bere egoera ez zen aldatu eta, hortaz, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularra izateko betebeharrak eta betekizun oro betetzen jarraitzen zuen. Hala ere, Lanbidek ez zuen errekurtsio hori onartu, eta prestazioa iraingitzea ebatzi zuen. Jaso ondoren, kexagileak kexa aurkeztu zuen Arartekoan.

Azaldutakoa ikusita, kexa izapidetzea onartu ondoren, Arartekoak aurreko gertaerei buruzko informazioa eskatu zuen Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegua Sailari helarazitako idazki batean.

Kolaborazio eskaerari erantzunez, Lanbideko zuzendari nagusiak txosten zehatza igorri zuen, eta bertan, egindako oharrei jarraituz, bi prestazioak jasotzeko eskubidea iraungi izana argudiatzeko iraungitze ebazpeneko argudioak errepikatu zituen, bereziki maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuko 24.4. eta 9.3. C) artikulua aplikatzeari dagokionez, baita 7.5 puntuari dagokionez ere, diru-sarrerak bermatzeko errentari dagokionez Lanbideko irizpideei buruzkoa; bidenabar, berraztertze errekurtsioa ezetsi izanaren berri ere eman zuen.

Erakunde publikoak erreferentzia egin zion, bidenabar, erakunde honek bidalitako informazio eskaeran jasotako alegazioari, bere egunean Lanbidek Arartekoaren 2019IR-997-19 Ebazpenari egindako harrerari zegokiona, 2019ko abenduaren 5ekoa⁵; horren bidez, amaitu egin zen erakunde honek ofizioz abiarazitako jarduna jaraunspenean jasotako ondasun higiezinak diru-sarrerak bermatzeko errentaren ondorioetarako duten tratamendua zela eta.

Bertan azaldu zenez, pertsona batek jaraunspen bat jasotzen badu, erabili ezin duen ondasun higiezin baten jabe bihurtzen duena (biziarteko usufuktuarekin kargatuta dagoelako) baina aplikazio arauen arabera 18/2009 Legearen 16. artikuluan eta 147/2010 Dekretuaren 9. artikuluan zehaztutako ondare muga gainditzen badu, prestazioa jasotzeko eskubiderik ez luke, edo aitortuta balu, ez luke hura berritzeko eskubiderik izango edo iraungi egingo litzaioke ondare muga gainditzeagatik.

⁵ Eskuragarri hemen: https://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4924_1.pdf



Arartekoaren iritziz, ez da neurri bakar batekin neurtu, ez du sostengu objektiborik, eta justifikatuko luke Lanbidek gaur egungo araudiaren interpretazioan haren ondorioak modulatzeko eta, aldi berean, modu egokiagoan lantzea etorkizuneko arau-aldaketa batean.

Lanbideri helarazitako gogoeta horiei erantzunez, erakunde horretako zuzendari nagusiak Arartekoari jakinarazi zionez, *"Errekerimenduen mugak eta muga horiek zenbatzeko formulak ari gara berrikusten, batez ere, ondasun higiezin oinordekotzen kasuan, araudia garatzeko asmoz. Garapen hori bi modutara egin daiteke batetik Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren Lege berri bat eginez eta, bestetik, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzutik 147/2010 Dekretua eguneratuz."*

Espediente honetan berriz ere sortu zen aurreko ofiziozko jarduketan landutako arazoa; arazo hori erakunde honentzat interes handikoa da eta Arartekoaren aburuz berriz ere arazoa nabarmentzen jarraitu behar du.

Hortaz, beharrezkoak diren egitateak eta zuzenbideko oinarriak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

Espediente honen helburua da aztertzea ea diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularra den bizikidetzaren unitateak prestazio horiek iraungitzeko kausaren bat ote duen:

1. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 16.c) artikulua (18/2008 Legea) diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra izateko betekizunen artean ezarri du **behar adinako baliabiderik ez izatea**, eta honako baldintza hauek betetzen direnean pentsatuko da baliabide horiek ez daudela:

– *"...Bizikidetzaren unitateko kide-kopuruaren arabera legokiokeen gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarritzko errentaren hileko zenbatekoaren azpitik dauden diru-sarrerak edukitzea hilean"*.

Halaber, artikulua horrek berak baldintza gisa jarri zuen ondasun higiezinik ez edukitzea, ohiko etxebizitza izan ezik.

Aztertu beharreko gaia da lau higiezin jaraunse izendatu izanak benetan ekarri ote duen bere gaitasun ekonomikoa hobetzea eta, horren ondorioz, betekizun horiek betetzeari uztea; hala izanez gero, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzeko kausa izango litzateke.

Egiaztatu da interesdunak ez duela herentziatik eratorritako dirurik, ez eta baliorik ere, jaso. Bestalde, lau etxebizitzaren titulartasunean duen parte-hartzea jabego soileko ehuneko jakin bat da, eta ez jabego osokoa. Are gehiago, ez da bizi





herentziatik jasotako lau higiezinetakoa batean ere ez, nahiz eta ez duen bizitzeko beste etxebizitzarik jabetzan.

Horren haritik, eta harik eta amaren aldeko lau higiezin biziarteko usufruktua bukatu arte, etxebizitza salduz, alokatuz edo ondasun horietako edozeinen etekinak jasoz, ezin da esan interesdunak herentzian jasotako lau higiezinak erabili ahal dituenik eta, horrenbestez, ezin da esan bere gaitasun ekonomikoa hobetu egin denik diru-sarrerak bermatzeko errentarik gabe bizirauteko punturaino; hala, de facto, hasierako egoeran jarraitzen du, hain zuzen ere Lanbidek bi prestazioak jasotzea aitortu zion egoera berean.

Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 52-54 artikuluetan bizikidetzaren unitatearen "baliabide orokorrak zehaztea" arautu zuen, errendimenduak zehaztea eta ondarea zehaztea. Hori diru-sarrerak bermatzeko errenta arautzen duen maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 14 artikuluan ere ageri zen:

"1.- Bizikidetzaren unitatearen baliabideak zehazteko, eskatzailearen eta aipatu unitateko gainerako pertsonen baliabide guztiak konputatuko dira, hau da, etekinak nahiz ondarea".

Halaber, lehen aipatutako maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuko 15-20 artikuluetan (biak barne) etekinak zein diren zehaztu zen, eta 23. eta 24. artikuluetan ondarea nola zehaztu azaldu zen. Lanbidek 2017ko maiatzean eguneratutako irizpideen dokumentuan interpretazioari ñabardura bat jarri zion, 7.5 atalean.

Helburua diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duen titular baten diru-sarrera guztiak zenbatzea da, direla ohikoak, direla ezohikoak. Izan ere, zuzenean eragiten dute oinarritzko beharrei aurre egiteko gaitasunean eta, beraz, diru-sarrerak bermatzeko sistema bizikidetzaren unitate horri baliabideak ematek salbuetsita egon daiteke, dagokion proportzioan, modu horretan **sistemaren zilegitasuna eta berdintasuna bermatzeko**.

2. Hala ere, higiezin bat jasotzeak, jabego soilean bada ere, titularrei prestazioa murriztea dakar, zenbaitetan etetea ere bai, bizikidetzaren unitatearen gehieneko diru-sarrerak gainditzen direlako, nahiz eta jasotako ondarea ez den **ekonomikoki gauzatzen**.

Ikuspuntu horretatik, Arartekoaren aburuz, beste interpretazio bat egin liteke, Legearen izaerarekin eta esanahiarekin hobeto bat egiten duena: ondasun higikorrek edo higiezinak ematen direnean legatu edo herentzia bidez, horiek jaso dituen pertsonak ekonomikoki ezin gauzatu ahal izateko eskubideren bat badago, titularraren diru-sarrera gisa zenbatzea atzeratu egin beharko litzateke harik eta "baliabideak sortu" daitezkeen arte, dela salmentagatik edo erabilera emateagatik (etxebizitza baten kasuan alokatzeagatik).



Interpretazio horrek ez du esan nahi doako negozio juridikoen ondorioz jasotako dirukoak ez diren ondasunak **baztertu egin behar direnik ezohiko diru-sarreren zenbaketatik**, onuradunak ezin baditu diru-sarrera horiek eskuratu, higigarriak edo higiezinak izan; aitzitik, esan nahi du **gauzatu arte itxaron beharko litzatekeela**, hau da, eskuratu ahal izan arte eta balioa gauzatu arte. Momentu horretan handituko baita benetan bizikidetzaren unitatearen gaitasun ekonomikoa.

Argudio hori sakon aztertu zen Arartekoaren 2016R-545-16 Ebazpenean, 2016ko urriaren 5koa, 1 eta hori, aldi berean, jurisprudenzian ere islatu da, besteak beste, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiaren 302/2018 Epaian, 2018ko azaroaren 2koa, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea ez berritzea xedatu zuen ebazpenaren aurrean aurkeztutako berraztertze errekurtsoa ezetsi zuen ebazpenari zegokionez Bukatzeko, honako hau azaldu zuen:

-“La mera recepción de un bien mueble o inmueble, a través de un negocio jurídico gratuito, herencia, legado o donación, pero sobre el que pesa un derecho a favor de terceros que impide su materialización económica, no redundan automáticamente en una mayor capacidad económica de la unidad de convivencia que permita a ésta hacer frente a sus necesidades básicas prescindiendo de la prestación de garantía de ingresos.

Aplicado este criterio al caso que nos ocupa, cabe afirmar que, en tanto no llegue a su fin el usufructo vitalicio reconocido a favor de la madre de la titular y se pueda disponer del inmueble en cuestión para generar recursos, la promotora de la queja carece de ingresos distintos de la propia RGI (lo que supone cumplir los requisitos contemplados en el citado art. 16 c) de la Ley 18/2008), que le permitan afrontar sus necesidades más básicas y evitar así la situación o el riesgo de exclusión social”.

Bestela esanda, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak loteria-sari, kalte-ordain, pentsio bat edo herentzian jasotako etxebizitza bat saldu ondoren dirua jasotzeak zuzeneko eragina du bere ahalmen ekonomikoan, hortaz, arrazoizkoa da, legearen mamiari jarraiki, pertsona hori jasotzen ari den prestazioaren zenbatekoa egokitzea.

Bestalde, higigarri bat edo higiezin bat jasotzen badu, doako negozio juridiko baten bidez, herentziaren ondorioz, legatuz edo emanaz, baina horren gainean beste pertsona **baten aldeko eskubide bat badago, gauzatze ekonomikoa ezinezko** egiten duena, **bizikidetzaren unitatearen ahalmen ekonomikoa** ez da zuzenean handitzen eta, beraz, ezin diete oinarritzko beharrei diru-sarrerak bermatzeko errentarik gabe aurre egin.

¹Eskuragarri hemen: https://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4028_1.pdf

3. Irizpide hori hizpide dugun kasura aplikatuz gero, esan behar da titularraren amaren alde aitortutako biziarteko usufruktua bukatu arte eta etekinak lortze aldera hizpide ditugun higiezinak kexagileak bere esku izan arte, kexagileak ez daukala beste diru sarrerarik jaraunse gisa izendatu aurreko egoerarekin erkatuz gero, eta, hortaz, 18/2008 Legearen 16 c) artikulua aipatuan aurreikusitako betekizunak betetzen jarraitzen du.

Arazo hori erakunde honek **ofiziozko 997/2019/QC espediente**a izapidetzean ere aztertu zuen, lehen aipatutakoa.

Azken espediente horren ebazpen ondorio emailean honako hau azaldu genuen:

“... Hala, azkeneko erabaki judizialen ondoren, ulergarritzat jotzen da diru-sarrera ezohiko bat ez egotea biziarteko gozamenarekin kargatutako higiezin bat jaraunspenean jasotako prestazioaren titularrei edo eskatzaileei.”

4. Aurreko interpretazioa gaindituta, erakunde honek honen gaineko zenbait kexa izapidetu ditu: herentzian jasotako eta biziarteko usufruktuarekin kargatutako higiezin bati Lanbidek ez dio diru-sarrera ezohiko baten tratamendua eman, baizik eta prestazioen titular izateko oztopo bihurtu da, abenduaren 23ko 18/2008 Legeak 16. artikuluan eta 147/2010 Dekretuak 9. artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

18/2008 Legearen 16.c) artikulua honako betekizun hauek jasotzen ditu diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular izateko:

*“ ... c) Nahiko baliabiderik ez edukitzea. Horrelako baliabiderik ez daukatela joko da honako baldintza hauek guztiak betetzen direnean:
– Bizikidetz-unitateko kide-kopuruaren arabera legokiokeen gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarritzko errentaren hileko zenbatekoaren azpitik dauden diru-sarrerak edukitzea hilean...”*

Ildo horretan, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 9.3. artikulua, diru-sarrerak bermatzeko errentaren jasotzailea izateko eskatzen diren betekizunen artean, honako hau jasotzen du:

3.– Nahikoa baliabiderik ez edukitzea. Horrelako baliabiderik ez daukala iritziko da, honako baldintza hauek guztiak betetzen direnean:

(...)

c) Dazkaten dirua, tituluak, baloreak, ibilgailuak eta, oro har, dekretu honetako III. kapituluko 4. sekzioan aipatutako beste edozein ondasun higikor gehienez ere honen zenbatekoak izatea: erabateko baliabiderik ezaren kasuan bizikidetz-unitateko kideen guztizko kopuruaren arabera legokiokeen Dirusarrerak bermatzeko errentaren urteko zenbatekoaren lau halako.

Araudi horren emaitza gisa, prestazioaren titularrak biziarteko usufruktuarekin kargatutako higiezin baten jabetza soilak jaraunspenean jasotzen duenean,

147/2010 Dekretuaren² 24. artikuluan agindutako balorazio arauak aplikatzen dira, eta litekeena da ateratzen den balioak 147/2010 Dekretuaren 9.3.c) artikuluan agindutako ondare muga gainditzea. Horrenbestez, Lanbidek pentsa dezake titularrak ez duela betetzen behar beste baliabide ez izateko betekizuna, nahiz eta praktikan, jaraunspenean jasotako higiezinaren biziarteko usufuktua amaitzen ez den artean, ezin duen hura erabili; horregatik, ezin da esan bere ahalmen ekonomikoa hainbesteraino, diru-sarrerak bermatzeko errenta jaso gabe iraun ahal izateraino, areagotu zaionik.

Halaber, diagnostikoa txosten horretan³ dagoeneko esan zen moduan, diru-sarrerak bermatzeko errenta eskuratzeko edo baliatzeko kasu batzuetan dauden muga ekonomikoen ondoriozko konparaziozko bidegabekeria-egoeretako bat da hau.

Hala, prestazioen titularrak edo eskatzaileak gehienez 34.428,31 euro baditu gordailuetan edo kontu korronteetan (2019. urtean pertsona bakarreko bizikidetz-unitate baterako), behar besteko baliabiderik ez duela iritziko da eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradun izateko betekizunak betetzen dituela.

Aldiz, aztertzen ari garen kasuan bezala, pertsona batek jaraunspen bat jasotzen badu, erabili ezin duen ondasun higiezin baten jabe bihurtzen duena (biziarteko gozamenarekin kargatuta dagoelako) baina aplikazio arauen arabera 18/2009 Legearen 16. artikuluan eta 147/2010 Dekretuaren 9. artikuluan zehaztutako ondare muga gainditzen badu, prestazioa jasotzeko eskubiderik ez luke, edo aitortuta balu, ez luke hura berritzeko eskubiderik izango edo iraungi egingo litzaioke ondare muga gainditzeagatik.

Ez da neurri bakar batekin neurtzen, eta, Arartekoaren iritziz, ez du sostengu objektiborik, eta justifikatuko luke Lanbidek gaur egungo araudiaren interpretazioan haren ondorioak modulatzeko eta, aldi berean, modu egokiagoan lantzea etorkizuneko arau-aldaketa batean.

5. Lanbideri helarazitako gogoeta horiei erantzunez, erakunde horretako zuzendari nagusiak Arartekoari jakinarazi zionez *“Errekerimenduen mugak eta muga horiek zenbatzeko formulak ari gara berrikusten, batez ere, ondasun higiezinaren oinordekotzen kasuan, araudia garatzeko asmoz. Garapen hori bi modutara egin daiteke batetik Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren Lege berri bat eginez eta, bestetik, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzutik 147/2010 Dekretua eguneratuz.”*

Erakunde honi oso onuragarria iruditu zitzaion Lanbidek bidalitako txostenean adierazitakoa, eta erakunde horretako arduradunek hitzeman izana arazo honi buruzko kezak izapidetu bitartean hautemandako gabeziak eragin dituzten irizpideak berrikusiko eta argituko dituztela, araudiaren garapen berri batean jasotze

² “Nolanahi ere, paragrafo honek aipatutako ondasunak, ondarea zenbatzeko ondorioetarako, ondasun higikorren moduan tratatuko dira; hala, dekretu honen 9.3.c) artikuluan agindutako muga aplikatuko da.”

³ Online eskuragarri: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4199_1.pdf



aldera; arazoa da, azkenik, joan den legegintzaldian ez zela onartu Diru-sarrerak Bermatzeko Sistemaren Lege berria.

6. Horri dagokionez, nabarmendu behar da prestaketa lanetan aurreikusi dela kontuan hartu behar dela gauzatzen zaila izango den ondarea existitzen dela, eta horiek desberdin zenbatu behar direla ezarritako mugak gainditzea saihesteko.

Erakunde honen aburuz, indarrean dagoen araudia aldatzeko aurreikuspenak eta gauzatzen zailak izango diren ondasunak etorkizunean beste era batera zenbatzeak ez du eragozten Lanbidek, bien bitartean, indarrean dagoen araudia Arartekoak behin eta berriro proposatu duen gisan interpretatzea, horixe baita 18/2008 Legearen helburu eta espirituarekin hobekien egokitutako interpretazioa.

Arartekoaren iritziz, herentziaz ondasun bat jaso izanak eta ondasun horrek biziarteko usufuktua izateak ez dio inolako aldaketarik ekarri gaitasun ekonomikoan eta konparaziozko bidegabekeria-egoera bat dakar legez aurreikusitako mugara arteko ondasun eta baliabide ekonomikoak dituztenei dagokienez.

Horregatik guztiagatik, iradokizun hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

IRADOKIZUNA

Azaldutakoa kontuan hartuz, Arartekoak Lanbideri iradoki dio berrikus dezan interesdunari aitortutako prestazioa iraungitzeko erabakia, **“behar besteko baliabiderik ez izateko betekizuna betetzen duelako”**, egiaztatu baita herentzian jasotako ondasunak biziarteko usufuktuz kargatuta daudela eta, horrenbestez, gauzatzen zailak direla.

